

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

48. zk. 1996ko abendua

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

abenduak 22



maratoi

Azkena... txapeldun!

... ere

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA	PRENTSA KABINETEA Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g 16 13 08 16 13 44 Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXE BIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



**Z E
E L
R E
B B
I D
T U
Z N
U A
K**

96ko-abendua

geu gasteiz
aldizkaria

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzio-burua:

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

INAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

Autobahiketa



MUTIL HURA Arabako herrixka batean bizi zen. Oso goiztarra zen eta, egunero, tximistaren pare jaiki eta gosaldutik ostean, eguraldi ona nahiz txarra egin, herrixkako bidegurutza jotzen zuen. Eta mutil hark erloju bat zeukan, eta herritarrak lan egitera-eta beraren ondotik autoz nahiz oinez igarotzen zirenean, mutilak erlojuari begiratzen zion eta berehala konturatzen zen herritarrak lanerako garaiz ala berandu zebiltzan. Eta harako hura denboraz bazebilen, ozta-ozta agurtuko zuen; baina berandu joanez gero, keinuka eta imintzioka hasiko zitzaion, esku batekin erlojua seinalatuz eta bestea zakar astinduz, halako zerbait esan nahian: "Oso berandu zabilta. Horrela ez dago ibiltzerik. Ea bihar garaiz joaten zaren!", izan ere mutil hark primeran ikasiak baitzituen herritarren ordutegiak eta ohiturak. Eta horregatik, denek oso maite zuten herrixka hartan bizi zen mutila, horregatik eta gorputzean kabitzen ez zitzaion bihotz handiarengatik. Bizi izan zen bitartean, mutil hark ez zuen behin ere bidegurutzean hutsik egin, eta horren ostean, bederatziak

aldean, elizara joango zen, apaizari meza ematen laguntzera, eta jarraian postariari lagunduko zion, eta esnesaltzaileari, eta, eta...

Eta, egia esatera, Euskal Herriko auzi eta kontuez pentsaketan hasten naizenean, mutil harekin gogoratzen naiz. Eta gure egoera soziopolitikoari begiratzen diodanean, mutila keinu eta imintzioka ikusten dut, oso-oso berandu gabiltzala adierazi nahi baligu bezala.

Euskararen egoeraz pentsatzen hastean ere, mutil hura keinu eta imintzioka ikusten dut, baina oraingoan lasaixeago ikusten dudala iruditzen zait, eta hasia dela "Tira, garaiz samar gabiltza" esaten.

Eta ene gogoeta literaturari dagokionean, esango nuke mutilak erlojua ahanzi eta liburu bat hartzen duela esku artean (berak haur literatura du bereziki atsegin), eta orduan bidegurutzetik urrun joaten dela. Eta bahiketak (presoak, zaintzaileak, enpresariak, ideiak, kulturak...) denon ahotan dauden honetan, esango nuke on dela egunero tarte batean nork bere burua bahitzea eta liburu izatea gure bahitzailea, gure maitalea, estetikoki eta afektiboki bahitu eta elikatuko gaituena, Stockholm sindromea eragingo diguna... Baina erantsi egingo nuke liburuak ez duela zertan Durangon atera berria izan (makina bat liburu eder zokoratzen ari gara azken urteotan), eta ez duela zertan derrigor euskaraz sortua izan (Literatura Unibertsala bilduman itzulpen zoragarriak aurki ditzakegu), edota edozein hizkuntza dela bahitzaile literario on. Eta amaitu egingo nuke esanez, autobahiketa guztietatik bezala, baietz bizipen horretatik aldatuta irten, baietz indartsuago eta askeago sentitu gero egunerokotasunean bizi ahal izateko. Azkenik, herrixka hartako mutilak ohartaraziko digu garaiz ala berandu gabiltzan.

PATXI ZUBIZARRETA

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik. Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

KALEA

Gabon opariak

Eguberriak edo Gabonak, lagunak eta familiakoak zoriontzeko garai paregabea izaten dugu. Baina baita opariak egin eta gehiegizko kontsumorako ere. Gainprodukzioaren garaian bizi gara eta mota guztietako produktuen saturazioa dagoela jakinik, politiko eta ekonomista batzuen iritziz, ekonomia aktibatzeke kontsumoa emendatu edo areagotu beharra omen dago. "Aditu" horien iritzia gutxi balitz, hortxe ditugu telebista eta gainontzeko komunikabideak kontsumitu beharraren deia lau haizetara zabaltzen.

1.- Zein motako opariak egiten edo jasotzen dituzu?

2.- Izaten al du eraginik publizitateak Gabonetako gastuetan? Zein eritzi duzu jostailu sexista edo belikoei buruz?



JAVIER GIL
ikaslea

- 1.- Normalean arropa oparitzen didate eta inoiz edo behin koloniaren bat. Iaz argazki kamera oparitu zidaten, nire gustokoa zela zekitelako.
- 2.- Gizarte kapitalista baten barruan gaudenez asko nabaritzen da publizitatearen eragina.

Bertsoak

**LAKU HANDIETAKO
KRISIA**



EGILEA:
Asier Otamendi
DOINUA:
alargunarena

Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Azken bi urtetan babesa zuten
Zairen hartutako lurrez
baina berriro laku handitan
gerra dugu zoritxarrez
milaka hutu bidean zehar
sabela gose-nigarrez
heriotz ziurretik ihesi eta
balizkoaren beldurrez.

Aberats asko gizenduko zen
arma salmentaren gaian
giza laguntza petatxozkoa
bidaltzen dute jarraian
le(he)nik kaltea sortu ondoren
guztia estali nahian
dena posible izan liteke
negozioaren garaian



AGIRRE
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
Tfnoa: 989 50 73 18
GASTEIZ

KLASEAK
matematika
fisika irakaskuntza ertaina
kimika eta unibertsitatea
biologia
geologia ☎ 26 03 54



KAMILO MORALES
ikaslea



LUIS ALVARO RODRIGUEZ
ikaslea



LEIRE LEZA
ikaslea



AITZIBER ETXEBERRIA
ikaslea



MAMEN YARRITU
ikaslea

1.- Gure familian Gabonetan ez dira opariak egiten. Betidanik ohitura hori izan dugu eta horrela segitzen dugu.
2.- Eragin handia du, batez ere umeengan. Jostailu belikorik ez nuke inola ere oparituko.

1.- Egunero erabiltzeko gauzak dira gehien oparitzen dizkidatenak. Nik gauza txikiak oparitzen ditut, edo eskatzen didaten zerbait.
2.- Jostailu sexisten inguruan jendea gero eta kontzientziatuagoa dagoela uste dut. Nik, adibidez, mutil batek panpina nahi badu oparituko nioke.

1.- Beharrezko gauzak oparitzen ditugu. Nire bizioak ezagutzen dituzte eta horiek oparitzen dizkirate. Nik ere berdin jokutzen dut.
2.- Publizitatearen eragin handia batez ere haurrengan ikus daiteke. Telebistak eragina du, noski.

1.- 'Lagun ezezaguna' egin ohi dut. Beraz, oparia egin behar diodan lagunaren izaerarekin bat datorren gauzaren bat oparitzen dut.
2.- Telebistak orokorrean eragin handirik ez duela uste dut. Opari jakin batzuetarako agian bai, baina salbuespenak dira.

1.- Normalean ustegabeko opariak egiten saiatzen naiz. Saiatu behintzat saiatzen naiz.
2.- Nire ustez jostailu belikoak kaltegarriak dira. Beste mota bateko opariak aukeratzea nahiago nuke.



Kaixo lagunok! Asmatu duzue. Azaroko argazkiak Lobaina enparantza eta Floridako parkekoak ziren. Irabazleak Raul Garcia eta Erika Borobio izan dira. Zorionak!

a



Hile honetako argazkiak ere oso errezak dira, ezta? Animatu eta idatziguzu.

b

Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak
Mikeldi Zinemen eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendugimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiaik • Ping-pong mahaiaik

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

"INTOLERANTZIA ETA ISILTASUNA DITUGU ARAZORIK LARRIENAK"

Nor da?

❑ Florida Kultur Etxeko arduradun buru da. Irribarrez, "Zuzendari Anderea" dugula adierazi zigun. Beti ari da zer edo zer berri antolatzen. Direla hitzaldiak, kontu saioak, erakusketak, liburutegira ikustaldiak eta abar. Ez da geldirik egotekoa.

❑ Gasteizen jaioa da, "duela hogeita hamasei urte jaio nintzen". Virgo da baina ez dio ardurarik. "Egunkarietako gehigarrietan irakurtzen dut horoskopoa, nahiz eta ez dudan sinesten". Baina irakurri, hala ere. "Badaezpada ere! Horoskopoa aste ona iragartzen badizu, pozik, "aste ederra dator!" zeure buruari esateko moduan. Aldiz, arazo ekonomikoak, sentimentalak eta abar agintzen badizkizu, "baita zera ere! Ez da egia!", esaten diot nire buruari".

❑ Bi ahizpa dira. San Martinen bizi da. "Euskal girok ez dago, nik dakidanez. Ez dut auzoan denbora handirik ematen, dena den".

❑ Kultur Etxearen zuzendari denez, bertan eratzen diren saio guztien ardura du. "Iaz hasi ginen geure-geure aktibitateak antolatzen. "Hitza Kultur Etxean", "Abrite portas, klis! klas!", "Kontu kontari" eta beste".

❑ Euskaraz ikasten ari dela dio, gure hizkuntzan mintzatzen bada ere. "10. urratsean ari naiz. Iaz IKAn ari nintzen eta aurtun Armentian". Eta pozik ei da euskaraz ikasten. "Oso ongi".

❑ Lana, paseatzea, irakurtzea eta eskiatzea ditu afizio. "Behin bakarrik hautsi dut hezurra eskiatzen ari nintzela".

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria, Vitoria-Gasteiz

Hizkuntzaren arabera. Idazki eta agiri ofizialetan, dela NAN eta bestetan, "Vitoria-Gasteiz". Gainerakoan, euskaraz ari naizenean, "Gasteiz". Eta Euskal Herrian, nahiz eta gaztelaniaz egin, "Gasteiz". Hemendik

kanpora, "Vitoria".

Zure biziorik handiena?

Erretzea. Askok erretzen dut, gehiegia.

Eta bertutea?

Aldarte ona.

Jeniorik bai, hala ere?

TERESA CASTRO



Bai. Aldarte ona baina jenioa ere bai.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Denboraren eza. Batzuetan, lanean ari naizela, erabaki izan dut: "Gaur, zinera!". Eta orduak eta orduak pasa lanean eta azkenean: "Ez naiz joango!". Eta Kultur Etxeko eskailera jaisten eta nire buruari esaten: "Ez daukat ezer egiteko denborarik!". Eta hau eta hori...

Zer egingo zenuke munduko denbora dena izango bazenu?

Hainbeste gauza! Denbora hori

beteko nuke eta, ziur, denboraren eza izango nuke berriro. Beharbada idazten saiatuko nintzateke. Horixe.

Ezagutzen duzu GEU Elkarte?

Aldizkaria. Iruditzen zait lan handia egiten dutela. Eta besterik ere esango nuke: euskararen inguruan ari diren denek irakurtzen dute GEU-Gasteiz. Oso ondo zabaltzen dute beren aldizkaria. Guztiengana iristen da.

Egunkariren bat?

Etxean "Correo" erosten dute eta egunero irakurtzen dut. Lanean,



eguneko menua

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



"Egunkaria" irakurtzen dut, baina titularrak eta zutabeak irakurtzeko. Kafea hartzen ari naizela, "Mundo" eta "País", begiratu besterik ez. Asteburuan, berriz, "País", "Egunkaria" eta "Correo".

Oporrak non eta zertarako?

Lasai egoteko edo paraje berriak ezagutzeko. Nola den bidaia.

Bidaiazale zaitugu?

Bai. Vietnam ezagutuko nuke gustura. Eta Asia. Ez naiz behin ere joan. Oso polita behar du. Bestetik, Australiara ere gogo onez joango nintzateke.

Etxeko lanak nork?

Nik neuk, eta laguntzera etortzen zaigun emakumeak. Dena den, gurasoen etxean bazkaltzen dudanez, ez dut bazkaria prestatzen ibili beharrik. Ez dut zikintzen, beraz.

Zinezalea?

Bai, asko gustatu zitzaidan "El Padrino", "Cinema Paraíso", "Mediterráneo", "Plácido", "Bienvenido Mr. Marshall"... Era horretakoak. O!, eta filme biribila, "Sostiene Pereira", Tabucchiaren nobelatik aterata dago. Marcello Mastroiani da aktorea. Ikusi duzu?

Aktore-aktoretarik?

Brad Pitt. Oso guapo da. Ez da aktore ona, baina guapo bai. Aktoresetan, Victoria Abril, Meryl Streep...

Famatu adiskide baten izena?

Adiskide? Beharbada, Patxi Zubizarreta.

Eta eskaini?

Ezer gutxi, gutxiegi, beharbada.

Txikitako oroitzapen ederren bat?

Elurra egiten zueneko. San Antonion bizi ginen eta leihoak Florida parkera genituen. Eta elurra egiten zuenean oso polita zen.

Zer aldatuko zenuke gizartean?

Intolerantzia, hori bai.

Liburu gomendagarriren bat?

"Sostiene Pereira". Eta "Kontu Zaharrak"; benetan.

Idazleren bat?

Ez dut asko irakurtzeko astirik, asteburuan eta oporretan ez bada. Baina Atxaga gustatzen zait; hain zuzen, Bi anai eta Obabakoak.

Idoloren bat?

Brad Pitt aparte? (irribarrez). Idoloidolo...

Zer duzu eguneroko bizigarri?

Oso optimista naiz, baikorra, eta zerbait onik gertatuko zaidala pentsatzen dut beti. Eta batzuetan gertatzen zait!

Zer nahiko zenuke jendeak zutaz esatea zu hil eta gero?

Berdin zait! Segur aski, esango dute: "Aldarte ona izan zuen azkenera arte!". "A ze atso jatorra!".

Zure maitasun egoera?

Bihotzekoak jota nago. Esan nahi dut geratuta daukadala bihotza.

Zer zinateke Kultur Etxeko arduradun ez bazina?

Segur aski, latin irakasle.

Gasteizen biziko ez bazina?

Sevillan. Edo Granadan... bai, Andaluzian. Edo Lisboan. Bai, Lisboan hobeto! Oso polita da, itsasoa dauka... pixka bat hondatuta dago, ez dago berriturik eta apain, baina oso erakargarria da.

Nolakoa litzateke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Askos hobea. Emakumeak desberdinak gara. Haurretan ere, neskak eta mutilak desberdinak dira. Neskak ez dira hain lehiakorrak, eta lanak bukatzea gustatzen zaie. Mutilek, berriz, bestela jokatzten dute. Tira, ez da emakumezkoen edo gizonezkoen kontua. Denok aldatu behar dugu.

Zertarako daude Diputazioak?

Dirua administratzeko.

Eta udalak?

Horixe bera.

Hortaz, zertarako Gobernuak, Diputazioak eta Udalak?

Hori egin nahi izan dute. Udalak hurre daude, diputazioak erdian, Gobernuak urrunago. Gobernuak eta Diputazioak kompetentzia desberdinak baina gauza bera...

Zertan da emakumearen berdintasuna?

Ari da aurreratzen. Euskal Herrian emakumea lanean sartuta egon da, dirua

administratzen zuen... Industriak ere lanera bultzatu ditu emakumeak. Etxean, ordea, bestela da egoera. Erosketen ardura, haurrak gaisotzen direla... emakumeak du ardura gehiena, oraindik. Kultur arloan, berriz, ez da horrenbesteko alderik. Lan munduan, dena den, emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen dute.

Euskal Herriak duen arazorik larriena?

Isiltasuna. Intolerantzia eta isiltasuna. Gauzak ez dira kontrastatzen. Jendeak ez du hitzegiten. Politikoei bai, baina jendeak ez du hitzegiten terrorismoari buruz, independentziari buruz, autodeterminazioari buruz... Isiltasuna eta intolerantzia.

Zein duzu erlijio-egoera?

Agnostikoa, esaten da? Baina dudak ditu. Beti naiz dudatan. Agnostiko dubitatiboa. "Beharbada bada!", Nik neuk ere ez dakit agnostiko naizen. Batzuetan hor nabil esaka: "Ene Jaungoikoa!", arrenka. Bai, "Izan dadila eta datorrela laguntzera!".

Zer galdera nahi zenuke nik hiri egitea?

"Nahi duzu etorri Arzak jatetxera?", adibidez. Edo "Etorriko al zara New York-a?".

Zer erantzungo zenuke?

Baietz.

Miel Anjel Elustondo



Gasteizko udala PNV-PSE-UA HITZARMENA

ASPALDIDANIK ibili dira zurrumurruak, Gasteizko Udalean zegoen egoera politikoari buruz. Iazko Udal-hauteskundeen ondorioz, hiru alderdi politiko elkartu ziren Euskal Komunitate Autonomoaren gobernabilitatea eratzeke, hau da EAJ-PNV, PSE-EE eta EA. Gobernu hitzarmen horretan Foru Aldundian eta Udaletan beharrezko joku politikoak posible izan zitezen behar ziren akordioak azaldu zituzten.

Badakigu, adibidez, EAK ez duela ordezkariarik lortu Gasteizko Udalean; EAJ-PNVk bederatzi zinegotzi dituela eta PSE-EEK lau. Hamalau zinegotzi behar dira gehiengo osatzeko, Gasteizko Udalak hogeita zazpi kontzejal ditu eta. Beraz, azkenengo urte luzean, ez da posible izan gehiengoaz gobernatzea eta horregatik behin-behiniko akordioak egin dira beste talde politikoekin gehiengo hori lortzeko. EAJ-PNV eta PSE-EEK sinatu zuten hitzarmenean, idatzita dago: biek osatzen duten koalizioa beste talde batetara zabaltzea. Ahaleginak egin ziren, bai PPrekin, baita IUekin ere.

Bestalde, demokrazian hitzarmenak eguneroko ogia dira. Zer da pakturik gabeko demokrazia? Zergatik ez UArekin? Nik ondo uler-



tzen ditut sentimenduak eta bihotzari galdetuko bagenio, norekin egingo genituzke hitzarmen politikoak? Alderdi abertzaleekin bakarrik? Ez al dira baliozkoak gaur egun PPrekin edota PSE-EEekin indarrean dauden paktuak? Gainera bi gauza azpimarratu nahi ditut: lehendabizi, nik orain dela hiru urte esan nuen UArekin paktatu egin behar zela (egunkarietan daude nire orduko iritziak) eta bigarren, PNVk eta PSEk zeukaten programa ez da aldatu hitz bakar bat ere. Zein kalte dakar, bada, PNVk, PSEk eta UAK sinatu duten hitzarmenak?

Alberto Ansola

NEGUA

GARAI HONETAN ohi bezala, grisa nagusi dugu luzerako gure zeruetan. Txamarrak ganbaratik jaitsi, eskularruak eta galtzerdi lodienak jantzi eta euritakoa hartu behar izan dugu dagoeneko. Moztarria prest daukagu hotzak uzkituta ez geratzeko. Luze joan gabe, negutegia izango dugu gainean. Izan ere, mendi eta basoak gorri eta bakarti azaltzen zaizkigu, arbolak garbal, piztiak ezkutuan, txorien txioa isilpean, giroa arrotza... Badirudi natura eten egin dela, hilda bailitzan.

Egia esan, ez da batere erraza neguarekin harreman goxoak izatea. Are gutxiago, gure negu luzearekin. Izan ere, negua hotza da eta maitasuna, berriro. Beraz ez da arraroa izaten gasteiztarren artean neguarekiko gorrota somatzea. Halere, berotasunean maitasuna adierazten dela onartuta ere, aitortu beharko genuke, era berean, hoztasunean jakituria isladatzen dela. Eta bata bestea bezain beharrezkoa da. Ez dago negurik gabeko udarorik.

Hortaz, azalean izadia hilda edo lozorroan dagoela ematen badu ere, bizitzak aurrera darraio bai lurpe-



Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6. BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

dator

an bai izakien barruan ere. Horra hor, esaterako, haziak horbelaren azpian lanean, udaberrian beren ahalegin ixilen fruitua geure aurrean azaltzeko. Dinamika guzti horretaz jabetzen bagara, errazagoa izango dugu negualdia gogo onez onartzea eta probetxua ateratzea.

Eta izadian bezala, geure baitan ere. Badira kontu asko, beharrezkoak eta komenigarriak izanda ere, gustokoak ez ditugunak. Baina, bizitza ezin dugu gurari eta nahien arabera zuzendu. Eta zergatia oso errez ulertzen da: apeten arabera jokatzeko duena ez da bere buruaren eta jokaeren jabe eta, hortaz, gora-behera eta pertsonen menpe dago. Eta, garbi dago, inguruabarrak ezin direla gizakiaren bizitzaren gidari izan.

Horregatik, nahigabeak eta betebeharrak, lehenengo eta behin, onartu egin behar ditugu, neguarekin egiten dugun bezala. Hori ulertzeko, bihotza baino burua erabili behar dugu. Ez da komeni irudimenaz paradisu mentalak eraikitzea problemetarik ihes egiteko. Bihotzak ez dauka buruak baino azkarrago ibiltzerik. Hori dela eta, gure jokaeren ardatz nagusiak errealitatean izan behar du oinarri, ez beste inon.

Ez da ahaztu behar, ordea, gizonemakumeok gauza garela errealitatea kanpotik aztertzeke errealitatetik atera gabe. Horri perspektiba esaten zaio. Bada, urruntzeko gaitasun hori erabiltzen badugu, arazoak bestela ikusten dira eta errazago egiten zaie aurre. Baina urruntasuneko gogoeta honetan hainbat arrisku daude. Horietako bat etorkizunaren aurreko ziurgabetasuna da. Ziurgabetasun horrek errealitatetik kanpo eraman gaitzake. Horregatik, ezinbestekoa da zalantza horiei erantzuteko estrateji-plana eratzea, ustegabeak aurrikusiz.

Iñaki Gauna

Espiritu Santua falta zen



rengo barealdietan oso ongi konpondu baitira.

Azken agintaldi honetan, ordea, bien artean ere ez dute gehiengorik lortu eta horrek sortu dizkio Cuerda jaunari buruhausteak eta lo egin ezinak. Zerbait behar zuen egin. "AITA eta SEMEA" batera baziren ere, ez ziren nahikoa. Ilunpean hainbat eta hainbat joan etorri burutu ondoren, hara hor non azaldu zaion argia eta aurrez "SEMEAREKIN" akordiora iritsi ondoren "ESPIRITU SANTUA" besarkatu du sozio berri gisa... Nor eta UA alderdi probintzialista.

Era honetara dena ongi eta zuzen lotuta geratzen da, helburu guztiak lortu ahal izango ditu aurrerantzean: Arabaren "Autodeterminazioa..."; behar bezalako "Euskal Ordenantza..."; udal funtzionarien "Euskalduntze prozesua..."

Ezin esan gure alkate buru soila argi ez dabilenik... Orain "pizarran" ere idatzi ahal izango du eta gobernu aukietan eseri den "adiskide" berriaren dohaineko propaganda egin ahal izango du eta ez da gutxi!

Zenbat ikusteko jaioak garen! Bejondeizula Cuerda jauna! Euskaldunok ziur gaude gaur baino hobeto "zainduak" izango garela ("fitxatuak" irakurri behar da).

Abel Enbeita

NORK ULERTU Gasteizko Udalaren ibilera bihurria? Noraino hel liteke Cuerda jaunaren itsumena? Batek daki!

Gehiengorik ezak konponketak egi-tera bultzatu dute behin eta berriro eta horrela, gaurdaino, PSE-Eeri eskuz lotuta izan du bere EAJ-PNV alderdia. Hortik hainbat eta hainbat iskanbila sortu izan dira urte luze hauetan zehar. Txakurra eta katua bailiran trapu zaharrak elkarri aurpegi-iratzat jardun dute lotsarik gabe. Nahiz eta gehienetan "galeriari" begira izan direla uste dudan, ondo-

Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

IRVSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

LANDABURU AKADEMIAK JARRI ZUEN ABIAN UZTAILEAN EKIMEN BERRI HAU

Klase partikularrak euskaraz



Gasteizko euskalduntze prozesuak pixkanaka-pixkanaka aurrera darrai. Honen lekuko, besteak beste, azken urteotako B eta D hezkuntz ereduen hazkundea dugu. Joera horri, orain, beste bultxadatxo berri bat eman zaio klase partikularrak eskaintzen dituen Gasteizko lehen akademia euskalduna ren sorrerarekin: Landaburu Akademiarekin, alegia. Bertan OHotik UBIRainoko irakasgai guztiak jorratzen dituzte irakaskuntza sistema indibidualizatu baten bitartez. Era honetan ikasle bakoitzak behar duen laguntza euskaraz zein gaztelaniaz jaso dezake, norberaren eskaeraren arabera. Ekimenaren lehendabiziko lau hilabeteetako esperientzia oso positibotzat jo dute Landaburuko irakasleek, ikasleek lortu dituzten emaitza akademikoez gain, “euskaldun eta erdaldunen arteko dikotomia apurtu” egin delako. Bertan ez da liskar linguistikorik gertatzen. Aitzitik, ‘A’ ereduko hainbati euskararekiko zaletasuna piztu zaie”.



IRAGAN UZTAILEAN, udaran ikasle askok ikasten jardun behar izaten duela ikusirik, Landaburu akademiak bere ateak zabaltu zituen klase partikularrak euskaraz eskainiz. Gasteizen zegoen hut-sune bat betetzea da akademia berri honen helburua.

Harrera, hala ere, guztiz irekia da. UBItik eta OHOk edozein mailako ikasgaiak prestatu eta gaintzeko laguntza eskaint-

zen die Landaburu akademiak ‘A’, ‘B’ eta ‘D’ ereduko ikasleei eta ikasle bakoitzak erabili nahi duen hizkuntza aukera dezake. Funtzionamendu era hau posible da bertan erabiltzen den irakaskuntza indibidualizatuari esker, hau da, “bakoitzari berea ematen zaio”. Talde txikiak izanik, ikasle bakoitzak bere beharren arabera hartzen ditu klaseak. Zenbaitetan amankomuneko azalpenekin hasi eta ondoren ikasle bakoitzaren zalantza zehatzak banan bana



*Arte Ederrei buruzko Sailik
zabalena ezaan ezazu*

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak pintzelak lientzoak
oleoak ikatzkiloak olioak
akwarela kaballeteak etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Bildegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

ONGI
ETORRI
xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

erantzuten dira. "Froga gisa, euskaraz eta gaztelaniaz ikasi nahi zutenak nahastu genituen hasiera batean, zatiketa linguistikoa egin nahi ez genuelako. Orain esan dezakegu, gure esperientzia laburra bada ere, emaitzak oso onak izan direla eta ez dela inolako liskar linguistikorik gertatu. Are gehiago 'A' ereduko hainbat euskararekiko zaletasuna ere piztu egin zaie".

Bi hizkuntzetan elkarbizitze on horretan sakontzeko asmoz, Landaburuko irakasleek inkesta bat zabaldu nahi dute akademiara hurbiltzen direnen artean. Bertatik, gizarte osorako hainbat ondorio atera daitezkelakoan.

Beharrari erantzuten

Euskal akademia pribatu bat antolatzeko asmoa orain hilabete batzuk sortu zen. GEU Elkartaren inguruan lanean ziharduten hainbat lagunek klase partikularrak euskaraz emateko beharra bazegoela ikusi zuten, berak zeregin horretan bakarka aritzen zirelako eta eskaera hazkorra beteezina zitzaielako. Gauzak horrela, elkartu eta akademia bat sortzea erabaki zuten. Eki-mena euskararen egoera Gasteizen susta-

tzeko baliogarria zenez gero, GEU Elkartek ak berak babesa eman zion.

Ekimen berri hau abian jartzeko hurrengo urratsa toki aproposa bilatzea zen. 'Euskararen egoera Gasteizen' erroldako datuen arabera, hiriko iparraldean zen euskal akademia baterako alderik egokiena eta harantz abiatu ziren; Guatemala kalera, hain zuzen ere. Akademiarako izen baten bila ari zirenean, Pilar Fernandez de Landaburu andereñoaz gogoratu ziren. Ande-

reño honek Espainiako Gerra Zibila gertatu aurretik euskal kulturaren inguruko klase pribatuak ematen zituen Zapateria kalean. Gerra eta gero klaseak emateko baimena kendu zioten. Bera izan zen, beraz, gure artean klase pribatuak euskaraz eman zituen lehendabizikoa eta bere omenez 'Landaburu Akademia' izena eman zioten akademia berriari.

Edu Lopez de Luzuriaga



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**





1

diren tailerretara. Hasiera hartan, euskaldun gutxik izen ematen zuenez taldeak ez ziren osatzen, gutxieneko kopurua betetzen ez zelako. Nabarmena zen hori helduei zuzendutako tailerretan, batez ere. Lehen urrats garrantzitsu haren ondoren, antolatzaileen hurrengo helburua jendea euskarazko tailerretara erakartzea izan zen. Horretarako Gasteizko euskaltegietan barrena inkesta bat egin zen. Inkesta horretan ikasleei gustoko zituzen ekintzak zeintzuk ziren azaltzeko eskatzen zitzaien. Datu horiek eskuan izanda eta publizitate kanpaina indartsu baten ondoren, euskarazko tailerretan partehartzaileen kopurua finkatu egin zen ondorengo bi urteetan. Hala ere, "oraindik, kostea egiten da gauzak aurrera ateratzea" eta euskarazko tailerren kopurua oso urria da gaztelerazkoen aldean.

Egun hamabost bat tailer dira Gizarte-etxe

Abian dauden tailer batzuk bisitatzeko izan gara Geu Gasteizkoak eta ikusitakoaren arabera ondorio bat atera daiteke: tailer hauetan ari direnen xedea bikoitza da: alde batetik, aukeratutako ekintza ikastea; eta, bestetik, euskara erabili ahal izatea. "Ikastaro hauek euskara

 **azkarprint**
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

I N P R I M A T E G I A

EVS KIL OKELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

tailer eta ekintza

berreskuratzeko aukera ona dira. Etxean edo lagunekin euskaraz hitz egiteko ez dut apenas paradarik baina bertan, astean ordu t'erdí besterik ez bada ere, euskaraz mintza zaitezke" adierazi digu 'Landatxo' Gizarte-etxean larrugintza ikastaroan dagoen lagun batek.

Larrugintza tailer honetan aritzen diren hamar lagunak pozik baino pozago daude ikastaroarekin. Beren kexa bakarra denbora-eskasia da. "Ikastaroa oso laburra da. Bi hilabetez astelehenero biltzen gara ordu t'erdiz eta hau oso gutxi da. Astean behin izanda ere, ordu gehiago irauñ beharko luke eta kurtso osoko ikastaroa egokiagoa litzateke". Gainerakoan, pazientzia eta gogoa izatea dira beharrezko elementu bakarrak. "Larrugintza, berez erraza da, larruzko gauzak ondo gelditzen dira beti. Gainera, ikasi berri dugun langintza hau aurrerantzean etxean lantzen jarraitzeko asmoa daukagu".

'Landatxo' egoitza berean burutzen den sukaldaritza tailerreko partaideek ere euskaraz ikastearen erakargarritasuna azpimarratu dute. "Ikastaro hauek oso baliagarriak dira euskararako. Euskaltegiko lagun batzuekin izan ezik, gaztelaniaz aritzen gara". Beraz, gustoko ekintza bat ikasteaz gain, euskaraz hitz egiteko aukera bikaina ere badago eta, horrek guztiak, eskaintza erakargarriago bilakatzen du.

Ikastarorik arrakastatsuen, zalantzarik gabe, euskal dantzena da. Euskal dantzak behin eta berriro eskaintzen diren arren, jendearen interesa kurtsoz kurtso areagotu egiten da. 1993/94ko lehen kurtsoan, euskal dantzen bi ikastaro antolatu ziren eta handik aurrera, Gizarte-etxeren batean edo bestean, urtero errepikatu dira euskal dantzen tailerrak helduen zein haurren erantzun bikaina ikusita. Esan bezala, orokorrean emakumeak gehiengoak badira ere, euskal dantzen tailerretan joera hau areagotu egiten da. Baina ez da hori alde bakarra. Gehiago izateaz gain, emakumeek trebezia handiagoa erakusten dute dantzan: "Ikasten ditugun dantzak (Kuartangoko Dantza, Ezpata Dantza, Fandangoa, e.a.) errazak izan arren eta soilik oinarritzko mugimenduak egiten ditugun arren, nahikoa kostatzen zaigu dantzatzea eta bereziki mutilei. Hala ere, neurria hartzen diozunean, konturatu gabe ateratzen da".

Euskal dantzetan aritzen direnek ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen euskaraz ikasteari, baina, dena-dela, asko estimatzen dute

hori. Dantzariei kexa bat entzun diegu, ordea. Ez zaiela ikasten duten dantzaren historiaren nondik norakorik azaltzen. Badirudi antolatzaileak hutsune hori betetzen saiatuko direla hurrengo ikastaroetan, baina, oraingoz, parte hartzaileak beren mugimenduen zergatia ulertu gabe dantzatu beharko dute.

'Iparralde' Gizarte-etxean hamabost lagun inguruko beste talde batek gitarra jotzen ikasten du, hauek ere euskaraz. Hasieran ikasle euskaldun bat topatzeko zailtasunak izan arren, azken unean, nola edo hala lortu zen ekartzea eta tailerra, pentsatu bezala, euskaraz egiten dute. Hortik aurrerakoa imajina dezakezue. Bakoitzak bere gitarra ondoan duela hor aritzen dira 'Sarri, Sarri', 'Aitormena', edota Maixa eta Itziarren kantak ikasten eta dena-dena belarri egiten dute gainera.

Aipatutako tailerrez gain, 'Euskaraz mintzatzeko taldeak' antolatu dira Iparralden bertan eta baita Ariznabarran ere. Ikastaroaren izenak dioen bezala mintzamina egitea da helburua eta horretan aritzen dira hogeitaz lagun inguru ostegun arratsaldero Iparralden eta asteartero Ariznabarran. "Jendea oso gustora dago. Bertan, aurretik ikasitakoa erabiltzeko aukera baitute. Kanpoan, aldiz, lotsatu egiten dira edota senideek euskaraz ez dakitenez, abagunerik ez dute" azaldu digu Bego dinamizatzaileak.

Mintzamina lantzeko ikastaro hauetako partaideak, hala ere, kexu dira, partehartzaileak beren euskara mailaren arabera banaturik ez daudelako eta euren eritziz horrek klaseko bilakaera mugatu egiten duelako. Ez dute uste tailer hauek euskararen normalkuntzaren bidean oso baliagarri direnik. Zertxobait lagun dezaketen arren, euskarazko lantegi hauek "udaletxeak bere aurpegia garbitzeko besterik ez dira antolatu" azaldu digute.



Ikastaro berriak

Haurrentzako euskarazko tailerren egutegia ekintzaz gainezka izango da Gabonetan, ekimen ugari prestatu dira eta. Horrela, Arriaga, Landatxo, Judimendi, Arana eta Iparralde Gizarte-etxeetan pelikulak proiektatuko dira gazteentzako. Honez gainera, Arriagan eta Judimendin 'Denetatik pixka bat' tailerra antolatuko da, bertan jolasak, opariak, e.a. egongo dira. Judimendin, halaber, 'Mahai jolasak egiten' tailerra antolatu da eta Arriagan Panta Rhei antzerki konpainiak "Txintxilipurdi erregea" antzezlanak aurkeztuko du urtarilaren 2an. Bada beste hainbat aukera ere datozen oporrei begira: Landatxon, 'Opariak egiten' eta 'Gabon sukaldaritza'; Aranan, 'Gabon sukaldaritza' eta Iparralden 'Beirateak'.

Izena ematea abenduaren 9tik 20ra bitartean Gizarte-etxe bertan egin daiteke. Iparralden, ordea, hilaren 10etik 25era izango da izen emateko epea.

Urte berriari begira, badira urtarillean hasiko diren tailer berri batzuk. Judimendin haurrentzako 'Erlaxatzeko teknikak' eskainiko da asteazkeneko 17:30etatik 19:00etara eta helduentzako 'Objetuen dekorazioa' astelehenero ordu berean. Arriaga Gizarte-etxean haurrek 'Marrakiz eta margolaritza' ikastaroa jarraitu ahal izango dute ostegunetan; Aranako egoitzan, berriz, haurrentzako antzerki tailerra burutuko da osteguneko; Landatxon, azkenik, helduentzako 'Trebetasun sozialak' ikastaroa antolatu da ostegunetarako. Urte berriko ekintza hauetan parte hartu nahi duenak, gizarte etxe egokian eman beharko du bere izena abenduaren 19tik 24ra bitartean. Adi egon, beraz.

Edu Lopez de Luzuriaga



arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Gabonetan Umeentzako "Zinemazko" Parkea

Aurten berritasun ugari aurkituko dugu urtero antolatzen den "Gabonetako Parkean", era honetan teknologia berriak eta zinea izango dira nagusi. Abenduaren 26tik Urtarrilaren 6ra arte Mendizorrotza Kiroldegian eta bere alboan kokatuko duten 1.000 metro karratuko karpan.

Aparteko jokuak eta dibertitzeko gune ezin hobeak aurkituko dugu bertan; hauexek izango dira azpimagarrienak: Simuladoreak, Birtual Errealitatezko tresnak, 25 pertsonarentzako espazial-simuladorea kabina, ordenagailu interaktiboak; internetera komunikazioak... eta teknologi haundiko pelikulak.

Horretaz gain umeei zuzendutako hintxable haundiak, makilaje eta argazki tailerrak, Amerikar pista, antzerkia, lehiaketak eta sorteoak egongo dira gune zabal honetan.

Beste aldetik, eta zinemarekin lotura haundia daukan eskenatokia izango da; hor arlo honetako sei profesionalen partehartzaileak gonbidatuko dituzte errodaje ezberdinak egitera, zuzenketa, gidoiak, berziko efektuak eginez.

Beraz ez ahaztu, Abenduaren 26tik aurrera Mendizorrotza Kiroldegian Gabonetako Parkea.

BERRI LABURRAK



Con mucho gusto (cuadros de salón)

azaltzen ditu, beste beste. Beraz, kokapen desberdin horrek -arlo publikoan aurkezteko pausu horrek- izate berri bat ematen die irudiei.

Bestalde, lasaitasunez ikusita, koadroetan agertzen diren eskenak ez dira batere arruntak: ehiza, paisaia izugarriak, emakume lirainak, aintzinako garaia... Horrela, koadroak (ohiko ez den leku batean kokaturik) beste errealitaterako lehiu bihurtzen dira.

Horiek dira aurkezpen egunean Isabel Duboisek idatzitakoaren erreflexio batzuk. Egun horretan Gasteizko kultur arloko zenbait lagun bildu zen ekintza artistiko hori "cava" eta "canape"-en artean ospatzeko.

Hemendik, eta besterik gabe, beste deialdi bat egiten dizuegu erakusketa honetan parte har dezazuen, benetan proposamen interesgarria baita: Arterako leku alternatiboen aldeko apostua.

Ongi etorri eta dasta ezazue gustu oneko plater hau.

"Hangar 25" tabernan azaroaren 22tik abenduaren 9ra arte "Con mucho gusto (cuadros de salón)" izenburupean erakusketa ikusgarria ikusteko aukera izango dugu. Oraingo honetan Isabel Duboisek aurkeztutako azken proposamenaren aurrean gaude. Inguratzen gaituzten irudiei buruzko erreflexio bat da, non egongela eta taberna bat egiten diren elkargune moduan.

Zenbat laguni eskatutako koadroak, haien etxeetatik eraman eta, berez, koadroentzat ez den lekuan sartu dituzte, Hangar 25 tabernaren hormetan hain zuzen ere.

Era horretan pribatuak diren objektu horiek arlo publikora pasatzen dira. Edozein etxetan aurki daitezkeen pinturak dira. Alde horretatik arruntak direla esan dezakegu, baina beste ikuspuntutik begiratuta, erakusketa honek irudiak era berrian

Garapenerako Lankidetzaren Gida

GASTEIZKO UDALEKO Gazte Sailetik oso gida interesgarria jaso dugu. Araban kokaturik dauden Gobernu Kanpoko hamazazpi Erakunderen (ONG) auzoketaren zabalak egiten da aipatutako gida horretan.

Garapenerako lankidetzaren gida izenpean, beraz, Arabako GKEen ezaugarri eta datuak

ezagutu eta eskuratzeko aukera ezin hobe eskaintzen da.

Euskeraz zein erderaz argitaratu da eta orri bakoitzean erakunde baten informazioa agertzen da. Erakundearen izena eta helbidea lehenik; bigarren puntu batean beren sormenaren historia laburra; hirugarren atalean erakundearen helburuak eta beren jarduerak

eremua azaltzen da, bai eta burutzen dituzten egitasmoak ere. Azken puntuan nola lagundu diezaikezun azaltzen da.

Lan interesgarria, zalantzarik gabe. Gida eskuratu nahi baduzu Villa Suso Jauregian Gazte Sailean eska dezakezu.

David Alvez

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Kutxillera, 33 tfnoa. 25 02 39

JANTZI ETA OPARIAK
Kutxillera, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuperaturiko egurrez eginak
eta OSAGARRIAK
artelan lanak
lotategi eta berrualdeko proiektuak
egiten ditugu
Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

Kulturan zer



TXANGOAK

**Nazioatreko Antzerki
Jaialdia euskaraz**

Tanttaka taldearen eskutik:
'El Florido pensil'

Iruña Teatroren eskutik:
'Jaberik gabeko zopa-ontzia'

Kantua

Geu Elkartek Abesbatza bat
eratzeko asmoarekin agertu
zaigu azkenaldian

Ipuin Lehiaketa

Gasteizko Udaleko Gazteria
Sailak ipuin lehiaketa antolatut
du aurten ere

.. eta abar luzea



GEUrekin mendirira

neguan,
inoiz baino
hobeto

**BERTSOTAN BLAI
GASTEIZEN ERE BAI**

asier iriondo

jon maia

zigor enbeita

rikardo glez. de durana

AURKEZLEA

asier otamendi

abenduaren 19an
arratsaldeko 8retan

gasteizko
bertsolari
eskolak
aurkezten du

VILLA SUSO
JAUREGIAN



GEU



BERTSOLARITZA

BERTSOTAN BLAI
GASTEIZEN ERE BAI

Asier Iriondo
Ion Maia
Zigor Enbeita
Rikardo Glz de Durana

aurkezlea
Asier Otamendi

abenduaren 19an
osteguna
arratsaldeko 8etan

antolatzailea
**GASTEIZKO
BERTSO ESKOLA**

ANTZERKIA

abenduaren 12an,
8,30etan
Principal Antzokian
Tanttaka
Teatroak aurkezten
du

“El Florido Pensil”

(Eskola Nazional
Katolikoaren Oroimena)
A. Sopena Monsalve-rena

IPARRA
taberna
Gino ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa: 26 77 81

GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

BERBA EGIN GURE KIROLARIEKIN

Abenduaren 17an,
asteartean, “Berba egin
gure kirolariekin” hitzaldia
egingo da Dato kalean
Euskadiko Kutzak duen
aretoan.
Bertan Arabako kirolari
ezagunak arituko dira
hizketan.
Geu elkarteak antolaturiko
hitzaldi hau arratsaldeko
zortzietan hasiko da.

POESIA

Hitza Kultur Etxean

Hitza Kultur Etxean
egitarauaren barruan,
abenduaren 19an Bitoriano
Gandiaga, Pello Zabala eta
Gontzal Mendibil izango dira
Gasteizen eta “Gabon dut
anuntzio” liburuko zenbait
poema kantatuko dituzte.



Arantzazu inguruetan baserriz
baserri ibiltzen da urtero 40
lagun inguruko talde bat
kantu tradizional horiek
abesten. Giro hori erakutsi
nahian arituko dira kantuan
aipatutako hirurak Kultur
Etxean.

J A T E T X E A
H I U A K

Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

TXANGOAK

**ABESBATZA****GEU** 

HEGOALDE

**matrikula
zaitez!**

TXVSTA
TABERNA

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

MUSIKA GABONETAN

Principal Antzokian
Abenduaren 26an, 8,30etan

**Gasteizko Udal Banda
Samaniego, Olabide,
Marianistas eta Udaberria
eskolaniak**

Musika Gabonetan

Principal Antzokian
Abenduaren 27an 8.30etan

Karmina Bohemia

***Europako
Gabon kantak***

Principal Antzokian
Abenduaren 30ean 8,30etan

**European Symphonic
Orchestra Zuzendaria:
Cristian Florea**

***Urte zahar
eta urte
berriko
kontzertua***



Principal antzokian,
Abenduaren 28an, 8,30etan

Vaghi Concerti eta Erregelak dantza tailerra

Dido eta Eneas

Opera hiru ekitalditan

Principal Antzokian
Abenduaren 29an, 12.30etan

XXXIV.
Gabon
Kontzertua

Manuel Iradier Abesbatza

KIROLAK

euskara
kirol guztietara

maratona perdura ere!

GASTEIZKO 19. MARATOI ERDIA

abenduaren 22an (igandea)

**izango dela eta, EUSKARRIK
eta GEUK herri-lasterketan
parte hartzeko kross talde**

euskalduna sortzeko aukera
ezinhobea dela uste dugu.

**Taldean izena eman nahi
izanez gero eta, hasteko,
Maratoi Erdian korrika egin
nahi baduzu, deitu eguerdiz**

22 21 53 telefonora, edo
erantzungailuan utzi zeure
izena eta telefinoa.



euskarri

Pedro Asua, 2, 3 a
01008 Gasteiz
tel / fax: 22 21 53

**euskarri kirol
elkarteari lagundu
nahi diot, bazkide
izanik**

Izena: kirel gutz

Abizenak:

Kalea: _____ zkia: solairua: _____

Herria: _____ Posta kodea: _____

Herrialdea: Telefonoa:

Kuota: **1.000 pzta.** urtean

Kontu korronea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zka

kontu zenbakia

Umandiren hiztegia informatizatu egingo dute

ANDONI URREZTARAZU

Umandi zenaren Asmo hiztegia euskarri informatikoan jasotzeko akordioa sinatu dute Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak. UZEIk zuzenduko du proiektua eta 9 milioi inguru kostako da. UZEIk bi urte izango ditu lana burutzeko.

Andoni Urreztarazu Araian jaio zen 1902. urtean eta orain hiru urte hil zen. Bere bizi guzian, erbestean batez ere, euskararen alde gogor lan egin zuen. 1955ean argitaratu zuen Gramatica vasca liburua, gerra ostean idatzitako euskarazko lehen gramatika liburua hain zuzen ere. 1993ko azaroan Asmo hiztegia guztiz burutu gabe zuela zendu zen.



Diversiones...?

HORIXE DA

Soziedad Alkoholika taldeak kaleratutako azken lana: -maxi-CD bat bederatzi abestirekin-. Izenburuak berak ondo adierazten digu lan honen mamia. Alde batetik dibertsioa bilatu dute, beste inolako pretensiorik gabe. Abestiak jo eta entzunez dibertitzea izan da taldearen helburua; eta bestetik abesti bertsionatuak egitea. Aurkituko dituzun abesti guztiak bertsioak dira, ez dira S.A.k sortutakoak.

Besteak beste, Oskorri, Leño edo Fischer Z taldeen abestiak hartu eta bere erara moldatu dituzte. Hau da, S.A.ren soinua erantsi diote.

Lorentzo Recordsen grabatutako disko honek kolaborazio deigarriak ere izan ditu: Mamenek (Vulpes, Anticuerpos) ahotsa ipini du bi abestitan; Iñigok (The Allnighthers) bere "hammond-a" sartu du diskoa irekitzen duen "motxalo" abestian; eta Oskorriren "Furra, Furra" kantuan Amigos del Cañamo gasteiztarrek hartu dute parte.

Soziedad Alkoholikakoek, berriro, harritu egin gaituzte. Eurek gozatu egin dute lan hau egiten; orain, zuri ailegatu zaizu dibertitzeko ordua.

Amazonia: Azken Paradisua

UR BILTEGI

zaharrear
Amazoniari buruzko erakusketa bikain bat izango da ikusgai urtarilaren 5era arte. Erakusketa hau orain dela hiru urte aurkeztu zuten lehenengo aldiz Bartzelonan. Urte bete geroago, 1994ean, erakusketa horren erreplika bat egin eta erakusketa ibiltari bat egokitu zuten. Harrezkero hiriz hiri ibili da orain Gasteizen dagoen Amazonia: Azken paradisua izeneko erakusketa.

Amazonia zer den, munduko ekosisteman zer eragina daukan, bertan zein landare eta animalia bizi diren, ekosistema hori nola babestu eta beste gauza jakingarri asko azaltzen dira erakusketa honetan. Horretarako maketa eta eskenagrofiak jarri dituzte, naturari



buruzko hainbat artikulurekin batera. Datu bitxiak ere aurkituko dituzu bertan: Amazonia Frantzia baino hamahiru aldiz haundiagoa dela, adibidez.

Hau guztia eta askoz gehiago ikus ahal izango duzu Ur Biltegi Zaharrean (Alde zaharrean) urtarilaren bosta arte.

David
Alvez



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •



MOSTRONGOTXOAK



eta zuk... zek irakurtzen duzu?



helduok, gutxi irakurtzen omen dugu. Hori diote azkenaldian egindako zenbait inkestek. Guk, ordea, gure "montrongotxo" maitagarriek zenbat eta zer irakurtzen duten jakin nahi izan dugu. Horretarako, 'Niño Jesús' ikastetxera joan gara eta 6. B kurtsoan dauden neska-mutikoei beren iritzia emateko eskatu diegu. Ez dakigu guztiek egia esan ote diguten, baina eurek esandakoaren arabera guzti-guztiek atsegin dute irakurtzea; misterio eta abentura liburuak bereziki

IRAKURTZEA asko gustatzen zait. Abentura-liburuak irakurtzen ditut batez ere. Orain, "La historia interminable" irakurtzen ari naiz.

Nagore, 11 urte.

BAI, abentura liburuak irakurtzea gustokoa dut. Orain "Alegiak sudur ondoan begiak" irakurtzen ari naiz.

Sandra, 11 urte.

NIRI FARRE egiteko liburuak gustatzen zaizkit eta orain "Pipi Calzaslargas" irakurtzen ari naiz.

Joana, 11 urte.

ASKO gustatzen zait irakurtzea eta denetarik irakurtzen dut. Momentu honetan hiru liburu irakurtzen ari naiz: "La isla del tesoro", "Margolotinta munstruoa" eta titulua gogortzen ez dudana beste bat.

Maite, 11 urte.

BAI, irakurtzea atsegin dut. Denetarik irakurtzen dut. Orain euskaraz idatzitako liburu bat irakurtzen ari naiz: "Patxibusa".

Naihara, 11 urte.

NIRI ERE asko gustatzen zait irakurtzea. Orain bi liburu irakurtzen ari naiz, bata euskaraz, "Banpiro txikia", eta bestea erdaraz "Majori y el gato fantasma".

Leire, 11 urte.

ASKO gustatzen zait irakurtzea. Orain liburu bat irakurtzen ari naiz euskaraz "Hamasei paísa eta paralitiko bat" eta beste bat erdaraz.

Zuriñe, 10 urte.

ASKO gustatzen zait irakurtzea. Misteriozko liburuak bereziki, baina orain irakurtzen ari naizena "Amona, maite ezazu zure Susi" ez da misteriozkoa. Susik bere amonari idazten dizkion karta batzuk dira. Misteriozkoen artean, "La pandilla Pacto" bildumako liburuak 'superguaitis' dira.

Clara, 11 urte.

ABENTURA-LIBURUAK gustatzen zaizkit. Une honetan, "Txan Fantasma" irakurtzen ari naiz.

Gentzane, 11 urte.

NIRI misteriozko liburuak gustatzen zaizkit. Orain "Pottokoa" irakurtzen ari

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman  n!

Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

Jose		
Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00



izozkiak

naiz; hau ez da misteriozkoa. Misteriokoan artean, "Desaparecido" dut oso gogoko.

Agurtzane, 11 urte.

ABENTURA-LIBURUAK gustatzen zaizkit. Orain, "Los bonsais gigantes" eta Lucia Bakedanoren liburu bat irakurtzen ari naiz.

Liher, 11 urte.

ABENTURA eta beldurrezko liburuak gustatzen zaizkit. Abenturakoen artean "Cinco semanas en globo" eta beldurraren arloan "Visita aterradora". oso onak dira. Orain ez naiz ezer irakurtzen ari, liburu bat amaitu berri dut eta.

Mikael, 10 urte.

ASKO gustatzen zait irakurtzea eta orain Don Quijoteren liburua irakurtzen ari naiz. Honen aurretik "La isla del tesoro" irakurri nuen.

Oskar, 12 urte.

BAI, irakurtzea gustatzen zait, abentura-liburuak batez ere. Orain "Gizon kabalen piurak" hasi berri dut.

Mikel, 11 urte.

ABENTURA eta beldurrezko liburuak gustatzen zaizkit. Orain "Jurassic park" irakurtzen ari naiz.

Fernando, 11 urte.

BELDURREZKO liburuak gustatzen zaizkit. "La casa de la muerte" eta "Un Día en Horrorlandia" irakurri ditut azkenaldian.

Yuel, 11 urte.

IRAKURTZEA asko gustatzen zait. Gehien bat misterio eta abentura liburuak. "Los Hollister" eta "Bostak" bildumak ditut gustoko. Orain ez naiz ezer irakurtzen ari.

Kristina, 11 urte.

EUSKARAZ zein erdarazko liburuak irakurtzen ditut eta abentura liburuak gustatzen zaizkit. Orain "El pequeño vampiro" eta "Amona, maite zure Susi" irakurtzen ari naiz.

Seila, 11 urte.

Edu Lopez de Luzuriaga



GOIZEZ

Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 24 04 42
Ana 26 65 95
Eriete 29 96 50

ARRATSALDEZ

Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Leire 23 12 23
Maidar 24 90 62

GAUEZ

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maidar 24 90 62
Arrate 25 64 01
(ostegun eta ostiralean)

ASTEBURUAN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maidar 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 21
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35
Estitxu 25 99 60



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korteria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Abenduaren 22an azkena ere txapeldun

18

urte igaro
dira

Gasteizko lehen Maratoi erdia antolatu zenetik. Ordutik hona, urtero, Abenduko igande batean, korrikalariak nagusi izaten dira Gasteizko kaleetan. Aurten ere horrelaxe gertatuko da, Abenduaren 22an goizeko hamar



**Maratoi erdia ikusten
gasteiztar gutxi izaten da
espaloietan**



*Noiztik antolatzen du Manuel Iradier
Txangolari Elkartek Gasteizko Maratoi
erdia?*

Betidanik lagundu arren, hiru urtetik hona lasterketa goitik behera antolatzen dugu. Maratoi erdia hobe zitekeela uste genuenez, babeslea den Vital Kutxari geuk antolatzeko proposamena egin genion eta harrezkero geu gara arduradunak.

Esan diguzuenetz, bazegoen zer hobetzerik...

Bai, partaide kopuruari so egiten badiozue lasterketa beherantz zihoala antzemango duzue; ez zegoen berritasunik... Hasieratik hainbat gauza aldatzen saiatu ginen, ibilbidea eta probaren promozioa kasu. Guretzat lan handia izan bada ere, pozik gaude egindakoarekin eta hortxe dira urteroko emaitzak: partaide kopuruak gora egin du berriz.

Hala ere lehendabiziko Maratoi erdian, 1978koan alegia, 5.000 korrikalari izan ziren irteeran. Beste garai batzuk ziren haiek, ezta?

Aurreneko urtea izugarria izan zen. Jai giroa zen nagusi eta korrikalari askok eta askok moztorturik egin zuten ibilbidea. Denetatik ikus zitekeen: txarangak, pankartak... oraingoa baino herritarragoa genuen hura. Entrenamendurik eza zela eta, bat baino gehiago oinez iristen zen helmugara. Egun, aldiz, oso bestelakoa da dena.

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

**KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK**


zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



*HegoAmerikako
jantziarik ederrenak*

**PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52**



Trafikoarekin arazoak

Maratoi erdia abenduan izaten den arren, noiz hasten zarete lanean?

Lasterketa bukatu bezain laster, izandako akatsak ikusi eta egitasmo berriak biltzeko elkartzeko gara. Gero, lana banatu beharra dago, gauza asko egin behar baititugu: Publizitatea, ibilbidea, partaideak, babesleak, sariak... Uztailetik aurrera gelditu gabe gabiltza, baina gustura egiten dugu.

Gasteiz leku ona al da korrika egiteko? Eta zergatik ez dago Gasteizen Behobia-Donostia bezalako karrera erraldoi bat?

Horrelako proba batean parte hartzeko Gasteiz leku ezin hobea da. Baina gurea ez da Behobia-Donostia. Eta ez da hori gure

☞ Korrikalariek 21,097 km. egingo dituzte guztira. Irteera Mendizorrotzako aparkalekuan izango da goizeko hamar t'erdietan.

☞ Partaideek gehienez bi ordu eta 15 minututan bukatu beharko dute proba, bestela kontroletik kanpo geratuko dira.

☞ Korrikalariek bularrean eraman behar dituzte dortsalak, epaileek ondo ikus ditzaten.

☞ Kirolariek Mendizorrotzako dutsak eta aldagelak erabiltzeko aukera edukiko dute.

☞ Arabako Txapelketaren dominak ezik, ez da saririk egongo. Hori bai, helmugaratzen den orok kamiseta eta diploma bana eramango du etxera.

helburua. Gainera, hiriak berak ez du asko laguntzen, ikusle gutxi izaten baitira espaloietan. Bestalde, trafikoarekin arazoak izaten ditugu eta kale bakan batzuk baino ezin dira moztu.

Baina, salbuespenak salbuespen, igande batean eta goizeko hamaiketan nork behar du kotxea edo nor dabil presaka?

Gatazka bat nahikoa da egindako lana iluntzeko. Kale bat moztu behar badugu, auzokoek horren berri izaten dute eta hori gutxi balitz, egunkarietan ere iragartzen dugu. Baina ez du ezertarako balio. Gidari batzuekin beti dago haserrenen bat. Horren ondorioz, ia maratoi erdi osoa hiritik kanpo egiten da.

Ismael Diaz de Mendibil

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

*Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak*

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobea **taberna**
Kutxileria 23

The Allnighters:

Keep on, segi aurrera, keepin' on!!

"k

keep on,
keepin'
on!"
izeneko

bigarren diskoarekin gaurkotasuna berreskuratu du The Allnighters boskote gasteiztarra. Musikari trebeak dira. Diskoa bikaina, zuzeneko ezinhobeak eskaintzen dituzte. Zabalik daude ideia musikal guztietara. Horrelakoak dira. Ez duzu, beraz, aitzakiarik: hurbil zaitez The Allnighters-en mundu zoragarriara!.

Harremanetarako telefonoa 28.79.71.
Posta Kutxa 279, 01080 Gasteiz.



ZORTZI URTE igaro dira The Allnighters taldea sortu zenetik. Tarte horretan berrehun kontzertu, single bat, maketa bat, baxujole aldaketa eta bi diska egon dira. Diska horietan bigarrena egun hauek aurkezten ari dira, hain zuzen ere. Zalantzarik ez, lan bikaina egin dute azken diska honetan. Taldeko kitarrajole eta organojole den Iñigorekin egon gara berbetan.

Biniloaren soinuarekin maitemindurik zaudetelako, uko egiten al diozue CD-ari?

Biek izan behar dute lekua, nik uste.

Bateragarriak dira. CD-a, ordea, negozio hutsa da, garbi dago. Bere produkzioa merkeagoa den arren, merkatuan biniloa baino garestiagoa da. Guk 50, 60 eta 70eko hamarkadetako soinuak errebeindikatzen ditugu. Hala ere, badaude 90eko hamarkadan gustokoak ditugun taldeak: M-Clan, Sex Museum, Ferroblues eta Del Tonos. Baina..., ez dakit nola azaldu..., diskaren soinua ezberdina da, baxuak eta bonboak akustikoagoak dira agian. Lehengo musika, lehengo soinua nahiago dugu: New Orleans-ekoa, rythm and blues-a, jazz-a. Estetikari buruz, bestalde, ez daukat inongo zalantzarik. Horretan ez

dago konparatzerik: diskoen azalak, CD-arenak baino askoz politagoak dira. Eta ze arraio! Rock and roll-arentzat formato aproposena diskoa da, betiko biniloarekin maiteminduta gaude. Nostalgikoak gara-la? Behar bada, bai.

Nora eramaten zaituzte Rythm and Blues-ak?

Diruari dagokionez, inora ere ez. Rythm and blues-ak jarraitzaile gutxi biltzen ditu, baina guretzat handia da: gure bizimodua, gure musika, gure goganbearra, gure ardura da. Rythm and blues-a -hitzak hala azaltzen du- erritmoa da, musika mota askoren sustraia da, rock and roll-



GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

KUTXI
kalean

aren oinarria, eta gainera, musika ezberdinetarako ateak zabaltzen dizkizu: Rythm and Blues-ari esker musika-tresna askotara hurbildu ahal izan gara: armonika, organo eta tronpetara, hain zuzen ere.

Orain bost urte, Jhon Lee Hooker-en eskutik, blues-a salmenta zerrendetan gorantz zihola zirudien.

Bai, baina nork igo behar duen edo zer promozionatu behar den, moda-sortzaileek erabakitzen dute. Eurek esaten dute zein erritmo entzungo dugun leku guztietan (gregorianoa, blues-a...), eta zein arlotan izango den nagusi (publizitatean, zinean, irradian...). Gerta liteke, jendeak musika mota jakin hori eskatzea. Hala ere, blues-aren kasua uste dut multinazionalen saio huts bat baino ez zela izan. Dena den, Hooker agureak bere jubilariorako dirua lortu bazuen, ederto!.

Zer nolako aldaketak gertatu dira The Allnighters taldearen bizitzan zortzi urte hauetan?

Orain askoz irekiagoak gara. Zabalik gaude edozein musika tresna jotzeko edo edozein garai eta lekutako musika bereganatzeko. Beste aldetik, kontzertuei esker, taldea trinkoturik dago, eta hori nabarmena da gure soinuaren. Elkarriketetan zer erantzun ere ikasi dugu, eskentoki gainean inprobisatzeko... Eta gainera, amets batzuk egia bihurtzeko. Nik adibidez, betidanik gogoko izan ditudan musika tresnak dauzkatz: hamabi balbuletako Gibson kitarra eta Hammond organoa. Elkar jasaten ere ikasi dugu. Egun, harreman onak ditugu taldekideon artean. Gauza horiek igerri egiten dira musikan.

Zein erritmo dituzue gustokoago: beltzak ala zuriak?

Britaina Handiko rythm and blues zuria entzuten hazi ginen (The Animals, Yardbirds...). Gero Ameriketakoiei so egin genien. Han kitarrek nabarmenagoak dira: ZZ TOP taldearen estilokoak. Garai hartan boogie-k eta rockin-ak eragin handia izan zuten guregan. Gaur egun gure gustoak askoz zabalagoak dira eta biak onartzen ditugu. Beltza ala zuria? Berdin dio. Beltza, hamabi konpasetakoa eta

sentimenduduna? Bikaina! Zuria ala beltza? Biak. Baina, jakina, sustraiak beltzak dira; ez da hori ahaztu behar.

Bi izen aipatuko dizkizut eta zeuk zerbait komentatu.

Willye Dixon.

Blues konposatzaile handienetakoa. Dixon-ekin jo duten musikariak oso eza-gunak dira, baita bere abestiak kantatu dituztenak ere. Bera, ordea, ez da izen ospetsua rythm and blues-ean adituak ez direnentzat.

Eric Burdon.

Horri eta beste batzuei esker ezagutu ahal izan genuen Estatu Batuetako rythm and blues-a. Horiek ekarri eta eza-gutara ziutuzten European blues-aren izen garrantzitsuenak.

Eta zuk zeintzuk aipatuko zenizkiguke?

Peter Green eta Jhonny Winter oso kitarrajole bereziak dira. Organoari dagokionez, Brian Auger eta Brother Jack McDuff aipatuko nituzke, Little Walter harmonika lanetan, baita Wilson Pickett eta Lou Rawls-en abots izugarriak ere. Inola ere ahaztu gabe James, Aretha Franklin, James Brown-en lan ezezagunak eta beste asko. Aldizkarian ez zenukete lekuri izango aipatuko nituzkeen



musikari guztiak sartzeko.

Nolakoak dira zuen jarraitzaileak?

Era guztietakoak: hoge eta berrogei urte artekoak, egoera sozial ezberdinetakoak, pijoak, hippyak. Denetarikoa.

"I Got Nothing" abestian entzuleek musikari dioten estimazioaz hitz egiten duzu. Zaila al da publikoaren erantzun ona lortzea?

Bai, baina -zorionez- entzuleak enroilatu egiten dira gurekin. Oso gogorra da kontzertu bateko publikoak kasurik ez egitea, kolpe psikologiko gogorra. Guri, ez zaigu inoiz halakorik gertatu. Agerraldiak bukatu ondoren jendea guregan etortzen da zer gustatu zaion komentatzera. Gure musikan sartzen dira, komunikazioa dago.

Abestietan musikaz, amodioaz eta diruaz hitz egiten duzue. Hiriek al dira Rythm and blues-aren topikoak?

Ezin dizut gauza handirik esan, Igu baita hitz gehienak idazten dituen. Dena den, agertu aipatu egiten ditugu ere taldearen inguruko gauzak eta gertakizunak.

Diskoa saldu behar bazenu, nola egingo zenuke?

Arlo askotan maila altua lortu dugula esanez. Musika tresnen soinua, adibidez, bikaina da. Produktzioa, Fernando Pradoren, oso ona. Haize-instrumentoetan izan dugun laguntzari buruz, zer esan dezaket? Gauza onak bakarrik, jakina!. Diskak talde trinko baten soinua islatzen du. Abestiak onak dira, onak eta musika mota ezberdinetakoak. Abestietan blues, rythm and blues, groove, jazz edota soul musiken ezaugarriak topa ditzakezu. Bukatzeko esango dizut maila artistikoari dagokionez, oso lan ona egin digutela. Gu, behintzat, oso pozik gaude azalekin. Lanak erakargarriagoak izaten dira ondo aurkeztuz gero. Hor duzue bada gure "Keep on, Keepin' on!!" lana bi formatotan: CD-a eta biniloa (azken honekin single bat izango duzue opari gisa). Aurrera biniloa!.

Txabi Arnal Gil

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Euskaraz izerdi patsetan



euskara
kirol guztietara



KIROLEN BATEAN

aritzea eta euskaraz mintzatzea ia ezinezkoa zen oraintsu arte Gasteizen.

Denboraldi honetan, ordea, egoera horri buelta eman dio Euskarri Kirol Klubak.

Saskibaloia, futbola eta areto-futboleko lau talde ari dira

Geu elkartearen laguntza duen klub honetan, eta kirola egiteaz gain kirolarien artean euskera erabiltzea posible dela erakutsi dute.

GABONETAN ERE
irakurleentzako
eskaintza zabala

Haurrentzako sailak eta
Durangoko Azokako nobedadeak

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 *errikoia*



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

arretu-futbola



"Gure helburuak argiak dira: kirola euskaraz bizi ahal izatea batetik; eta, emakumeen artean baztertuta dagoen kirol hau zuzpertz eta indartzea bestetik. Gure artean ondo pasatzea eta euskaraz bizitzea lirateke beste helburu batzuk.

Estitxu, entrenatzailea

ZUTIK, EZKERRETIK ESKUINERA:

PATIZIA TREVEJO, SAIOA SANCHEZ, MIREN ENCINA, ESTITXU GOROSPE, ESTITXU BREÑAS (ENTRENATZAILEA)

MAKURTUTA:

MAIALEN URTURI, RUTH AGILERA, AINARA MARTINEZ, RAKEL GARCIA, MONIKA ALONSO



saskibaloi

Lehenik eta behin, saskibaloiaren munduan gabiltzanon artean euskal giroa lortzea da taldearen helburua. Eta kirol arloari dagokionez, taldearen maila ikusirik, igotzen saiatzea da gure asmoa.

Xabi, entrenatzailea

6 EKAITZ MAJUELO, 7 ARITZ IVAN ALBAINA, 8 RUBEN LANDA, 9 IGOR SANZ, 10 ION GONZALEZ, 11 DIEGO SANZ, 13 ARITZ URIARTE, 14 URKO BENGUA, 15 JORGE PEREZ XABI GONZALEZ (ENTRENATZAILEA)

arretu-futbola



Helburu nagusia talde euskaldun batekin gure ligan ahalik eta goien ibiltzea da. Horrez gain, euskaraz ariko den talde batean Arabako gazteek futboleko jokatzeko eta aurrera egiteko aukera izatea.

Koldo, jokalaria-entrenatzailea

ZUTIK, EZKERRETIK ESKUINERA:

AITOR MORENO, JAVI LATORRE, UNAI AISDA, IGOR GUTIERREZ, LUIS MUÑOZ, OSKAR GUTIERREZ, UNAI AIERBE, GONTZAL SANZ

MAKURTUTA:

JAVI CORDERO, DAVID PORTILLA, TXEMI VALDECANTOS, KOLDO BELTRAN DE HEREDIA, IÑIGO JIMENEZ, IGOR ZUBIZARRETA, JOSU CORDERO



saskibaloi

Kirola eginez euskaraz mintzatzea da gure helburu nagusia. eta lagunak egitea, ondo pasatzea eta mutilekin afariak egitea ere bai, jakina.

ARGAZKIAN:

4 ESTHER ARANA, 5 IRATXE LEZETA, 7 AITZIBER GARCIA, 8 ITZIAR FERNANDEZ DE LARRINO, 9 MIRIAM MARCOS

FALTA DIRA:

6 KARMELE JAIO, 10 ARRATE ALBAINA, 11 IRATXE DANBORENEA, 12 ARANTZA PEREZ DE ARENAZA, 13 NAGORE ZURUTUZA, 14 M. PILAR BASTIDA, 15 IRANTZU TXINTXETRU ENEKO POU (ENTR.)

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEEKI

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

Pio XII.a kalea, 7 behe
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ



Ezagut ezazu zeure burua

**Burunburu Komina
doktorea**

zekená ala eskuzabala zara

1

agun batek gauzaren bat
eskatzen dizunean kostata

uzten diozu ala bitan pentsatu gabe
ematen diozu? Jokaera horren
arabera pertsona eskuzabalak eta
zekenak bereizi egiten ditugu. Baina
gauza gehiago ere kontuan hartu
behar dira. Opariak egitea gustoko
duzu? Zure eskuetatik ateratzen den
pezeta bakoitza zenbatzen duzu? Test
honen bidez, norberaren zekenkeria
noraino hel daitekeen neurtzen
saiautuko gara. Diruarekin bakarrik
gara zekenak ala bizitzako beste
arlotan ere bai?

Hemendik aurrera aldizkaria
jasotzeagatik urtean 1.500 pzta
ordaindu beharko duzue. Zuen
eskuzabaltasuna demostratzeko
aukera paregabea duzue orain. Beraz
ez zaitezte zekenak izan, mesedez.
Oraindik dudarik baduzue segi
aurrera gure testarekin.



EZ ZARA EGITEN ZURE LENTE PROGRESIBOETARA?



MULTIOPTICA Sen ZURE VARILUXak ZURETARA EGITEN DIRA



- ADITU HOBERENEK PERTSONALIZATU
ETA BERMATURIKO EGOKITZAPENA.
- MUGIMENDU ASKATASUNA
ETA IKUSMEN EROSOTASUN OSOA.
- SALMENTETAN LEHENA. PREZIOETAN
LEHENA.
- ORDAINKETA ATZERATUA
ERREKARGURIK GABE
- ADOS EZ BAZAUDE ZURE
DIRUA ITZULTZEN DIZUGU



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)

GASTEIZ

1 *Gaur zure lagun baten urtebetetzea dela eta, zoritxarrez edo zorionez, opari bat egin behar diozu. Oparia erabakitzerakoan zer da zuretzat garrantzitsuena?*

- A Merkea izatea
- B Aukeratzen denbora asko ez ematea
- D Lagunaren gustokoa izatea

2 *Molestatzen al dizu liburuak, apunteak, zintak, boligrafoak, etab... uzteak?*

- A Ez, ondo zaintzen baldin badituzte
- B Bai, inori ez zaio gustatzen gauzak uztea
- D Bai, gehienetan apurto edo galdu egiten dituztelako

3 *Dagoeneko badakizu Geu Gasteizkoak etxez etxe ate joka dabiltzala. Gaur zuri tokatu zaizu eta atean Geu Gasteizkoren bat duzu. Zer egin duzu?*

A Iruzur bat izango ote da?
Badaezpada ez diet aterik irekiko

B Aldizkari kutre hori ez dudala jaso nahi esaten diet. Hala ere, orain arte lau urtetan aldizkari guztiak dohainik jaso ditut.

D Pozik hatzen ditut eta kafea eta pastak hartera gonbidatzen ditut.

4 *Zure lagunik onenari, bueltatxo bat egin nahi zuela eta, bizikleta utzi diozu. Etxean zaudela telefono dei bat izan duzu. Zure laguna da. Istripu bat izan du baina bera ondo dago. Zer egiten duzu?*

A Sutan etxetik atera zara bizikleta nola dagoen ikustera

B Zure neba-arrebari guztia nola kontatu pentsatzen atera zara etxetik. Utzitako bizikleta ez zen zurea.

D Bere etxera korrika zoaz nola dagoen ikustera.

EMAITZAK:

A erantzunak gehiengo badira:

EZIN ZARA ZEKENAGOA
IZAN. MESEDEZ, EZ
JARRAITU HORRELA,
GORROI HUTSA ZARA

B erantzunak nagusi badira:

ZEKENA ZARA BAINA EZ
DIRU KONTUETAN,
BIZITZAKO BESTE
ARLOETAN BAIZIK.

D erantzunak nagusi badira:

ZORIONAK! ESKUZABALA
ZARA BAINA ARGI DAGO
ZUREKIN EZIN DELA
JOLASEAN IBILI.

Burunburu Komina doktorea

Floridako altxorra !

35

adaka M madinabeitia

altzariak ■ apaingurak
Florida, 35 - tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



TXEROKIK ERB BAI?



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



Klaseak euskaraz

OHO (EGB)

BBB (BUP)

UBI (COU)

LH (FP)

landaburu
AKADEMIA



GEU 
GASTEIZ EUSKALDUNA


BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea
(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)

 **12 09 50**
909 42 88 36



kide



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Pedro Asua, 2, 3 Fundazio. Sancho el Sabio Fundazioa tel / fax: 22 21 53

